

1. GAIA

1 Korronea, tentsioa eta potentzia dira:

- a) Zirkuituko aldagaiak.
- b) Zirkuituko parametroak.
- c) Linealki mendekoak.
- d) Zirkuitu ez linealetan zentzurik ez duten kontzeptuak.
- e) "a" eta "c" erantzunak baino ez dira egiazkoak.

2 Kirchhoff-en legeak aplika daitezke:

- a) Zirkuitua lau bada.
- b) Soilik eta bakarrik zirkuituak linealak badira.
- c) Lehenengo legea bakarrik zirkuituko korapiloetan.
- d) Aplikazio unibertsalekoak dira, edozein zirkuitu motetan.
- e) Bigarren legea bakarrik zirkuituko sareetan.

3 Uhin-forma periodiko bati lotutako balioak

- a) Balio ezberdina izan ohi dute.
- b) Uhin-forma definitu positiboa bada, uhinari lotutako balioetatik bi berdinak dira.
- c) Uhin-forma bati lotutako balio bat ezin da negatiboa izan.
- d) "a" eta "c" erantzunak zuzenak dira.
- e) "a" eta "b" erantzunak zuzenak dira.

4 $f(t)$ uhin-forma periodiko baterako, beteko da:

- a) Batez besteko balioa " \bar{f} " beti positiboa da; $\bar{f} > 0$
- b) Uhin arteztuaren batez besteko balioa " $|\bar{f}|$ " beti positiboa da; $|\bar{f}| > 0$.
- c) Balio efikaza edo eraginkorra "F" beti positiboa da; $F > 0$.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.
- e) "b" eta "c" erantzunak baino ez dira zuzenak.

5 Uhin foram alterno sinusoidal batean, hauxe beteko da:

- a) Batez besteko balioa eta efikaza, aipatutako uhinaren maiztasunaren mendekoak dira.
- b) Balio efikaza balio maximoa baino $\sqrt{2}$ aldiz handiagoa da.
- c) "a" eta "b" erantzunak aldi berean bete beharko dira.
- d) Balio maximoa eta efikaza balio maximoaren mendekoak dira.
- e) Erantzun bat ere ez da zuzena.

6 Esan ondoko baieztapenak egia edo gezurra diren:

- a) Maiztasunaren unitatea c/s da E G
- b) Tentsioa parametro bat da. E G
- c) I.e.e. parametro bat da. E G
- d) Uhin periodiko baten batez besteko balioa, positiboa, negatiboa edo nulua izan daiteke. E G
- e) Uhin periodiko baten balio efikaza eta bere moduluarena berdinak dira. E G